



**Behi Bi Blues bikotearen emanaldia Okendon.-** Gaizka Azkarate eta Azkaitez Pelox bergarrek osatutako bikoteak kontzertu bizia eta erimtoz beterikoa eskaini zuten larunbat arratsaldean Okendo Plazan. Paseatzen edo poteoan zebilen jendearen arreta piztu eta dozenaka lagun bildu ziren bikote alai eta umoretsuaren emanaldia ikustera. Haurrak, gaztetxoek gurasoak, bikoteak, gazte jendea... Adin guztietako lagunek entzun zuten bikotearen errepertorioa. Formatu txiki eta erosoan, gitarra bakar bat, ahotsa eta aho-soinua edo harmonikaren doinuakin blues eta rockabilly doinuak eskaini zizkieten herritarrek. Bero-hodeiek zaparradaren bat botako zutenaren beldurrez, eguraldiari begira egon ziren arratsalde osoan, baina azkenean ez zuten euririk egin eta ordubate pasatxo kontzertu polita eman zuten eskenatoki inprobisatu batean. Kontzertua Udalak eta Xpression!-ek elkarlanean antolatzen duten Kultur Kale Zikloaren egitarauaren bamean kokatuta zegoen.

### 3 UDALA

#### Herria biziberritzeko plana aurkeztu du Udalak

Herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak indartzeko 'Lasarte-Oria Biziberritzeko' egitasmoa jarri du martxan Udalak. krisiaren eraginez hutsik dauden lokalak betetzeko herriko hirugarren sektorea indartu nahi dute. Hori lantzeko, bost hilabeterako hiru lanpostu eskainiko ditu.

### 4 DANTZA

#### Hileroko azken igandeetan dantzan egiteko aukera

Kukuka, Erketz eta Ttakunen elkarlanari esker, dantzarako aukera izango da Okendo plazan hilabetezko azken igandetan. Lehenengo saioa irailaren 28an, eguerdian izango da eta bertan, beste herri batzuetan egiten den bezala, herritarrek aukera izango dute mixtoak eta plaza dantzan aritzeko.



### 5 EUSKARA

#### ARGIA egunaren aurretik, kontzertuak Manuel Lekuonan

Jaia larunbatean Usurbilen egingo den arren, egoitza nagusia Lasarte-Orian du ARGIA aldiakariak. Horregatik ostiralean kantaldia antolatu dute kultur-etxean. Lasarte-Oria eta ARGIAren arteko harremanaz hitz egun dugu Estitxu Ezizagirre aldiakari zuzendariarekin.

## EPA LASARTE HHI

EUSKO JAURLANITZA GOBIERNO VASCO

### HELDUEN HEZKUNTZA

Educación de Personas Adultas

2014-2015 ikasturtea

Matrikula  
epea  
irekita



Beko kalea bidea 1, 3. ( Anbulategi gainean ) • Lasarte-Oria  
Tel.: 943 376443 / 943 366608 www.epalasarate.es

OSASUNA

# Martxan da Ondo Ibili egitasmoa

*Ariketa desberdinak egingo dituzte Nagusien Kirol Parkean bihar; ostiralearn, ibilaldia Atsokabarretik barrena*

Kiroldegi pareko Nagusien Kirol Parkea aukeratu zuten Ondo ibili egitasmoaren antolatzaileek, proiektuari buruzko xehetasunak emateko, ostiral eguerdian egin zuten agerraldian. Ez zuten kasualitatez hautatu tokia, egitasmoaren helburua adineko pertsonak "sasoi batean" egotea eta euren "bizi kalitatea hobetzea" baita, "modu atsegin" batean eta "lagunartean".

TXINTXARRI

**E**gitasmoaren helburuak lortzeko, bi ekintza nagusi antolatu dituzte. Asteartero, 10:30ean, ariketa desberdinak egingo dituzte adineko pertsonak, monitore batzuen laguntzarekin. Kirol Zerbitzuko Arduradun Karlos Altunaren hitzetan, "asteartero-asteartero" mantenduko da hitzordua, "eguraldi ona edo txarra egin". Astearte honetan hazi dira ariketekin, ekainera arte.

Ostiraletan beriz, ibilaldi- txoak antolatu dituzte herrian zehar. 11:00etan aterako dira ostiralero, Okendo plazatik,

Lasarte-Oriako Ibilbide Osasungarriak bultzatzeko taldearen laguntza. Helburua da 60 urtekin gorako pertsonen astean behin oinez egiteko ibilbidea osasungarriak eskaintzea. Paseoak ordu edo ordu eta erdiokoa izango dira.

## Lau ibilbide

Gizarte Zerbitzuen Arloko Arduradun Izaskun Oronozek eman zuten ibilbideen berri. Lau izango dira: Atsokabar (2.200 metro), Zubieta (2.754m), Oriá (4.000m) eta Plazaola (4.800m). "Atsokabarreko ibilaldia egingo dugu ostiralearn", esan zuen.

Herriko elkarte eta boluntarioek koordinatzen dituzte



Ondo ibili egitasmoaren antolatzaileak, ostiral eguerdian Nagusien Kirol Parkean egin zuten agerraldian.

ibilaldi hauek, Oronozek azaldu zuenez: "Nagusilan, Biyak Bat...zerrendak irekita jarraitzen du". Boluntarioen zeregina ibilaldiak dinamizatzeta eta gidatzea izango da.

## Zigiluak errezetetan

Boluntarioei txaleko batzuk banatuko zaizkie, eta adineko pertsonen zigilu bat ezarriko

zaie euren errezetan, eginen zuten ibilaldi bakoitzeko. Osakidetzako ordezkari Angel Gomezek aipatu zuenez, "gure estilo propioarekin lagunduko dugu egitasmoari oihartzuna ematen, errezetan zigiluak jarri. Ibilaldien egunetan laguntzen ariko gara. Herriaren parte izatea oso garrantzitsua da guretzat".

Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzuetako saileko buruak nabarmendu zuen "Osakidetzan, Atsokabar Zaharren Egoitzan eta gainontzeko zerbitzu sozialetan" eskuratu ahaliko direla errezeten libretak, eta Ondo ibiliri buruzko informazioa "Lasarte-Oriako adineko pertsona guztiei" banatuko zaiela.

## Bizikleta festa Okendon Mugikortasun Astea amaitzeko

**B**ukatu da Lasarte-Oriako Mugikortasun Astea. Okendo plaza bizikletaz bete zen ostiral arratsaldean, batetik bigarren eskuko birrinda azoka egin zelako eta bestetik haurren bizikleta festa ospatu zelako.

Eguraldi ona lagun zutela, kolore biziz jantzi zuten herriko plaza dozenaka haurrek. Zonalde bat bigarren eskuko bizikleten salerosketarako gorde zuten eta eguna amaitezako bizikleten erdia baino gehiago saldu zituzten.

Azokaren helburua mugikortasuna sustatu eta etxean traba egiten ari ziren bizikletak ganbaratik atera eta prezio ekonomiko batean beste herrietarrentzako aprobeztatzeko, baita lortu ere.



Bizikleta Festan gazteokoe euren abilezia proban jarri zuten oztipo ezberdinak gainditu eta bigarren eskuko bizikleten merkatuak arrakasta izan zuten.

## Gazteoxentzat festa

Guraso asko bigarren eskuko txirrindak begiraten ari zirela, adin ezberdinetako haurrek ibilbide labor zeta lizeak osatu zituzten herriko zirkuituetan barrena.

Okendo plazan bertan, ginkana moduko bat ere egin zuten, baloi, uzta eta arrantza ezberdinak oztipo zituztela.

Gazteoxek primeran pasatu zuten bizikletekin



aurrera eta atzera joan-etorriak eginen, hori bai, gutzi-guztiak buruan kaskoa jantzita ikusi genituen.

Artelatz eta Eskola Kirolak elkarlanean prestatutako ekintzetan, herriko gazteak

aritu dira begirale lanetan eta uneoro gazteoxen segurtasuna zaintzen aritu ziren.

Hortaz, ostiraletako ekintzen amaituzat eman dute hiru eguneko Mugikortasun Astea, datorren urtera arte.

## Diruz laguntzen duten erakundeak

### Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

### Laguntzailea



GFko Kultura eta  
Euskara Departamendua

### Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte

Celtiko kalea 4

20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

C-20407557

Legezko gordailua:

SSS13/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

### Eredakzioa:

Maidor Azurmendi, Jon Altuna

E-Itzi Gortalez

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Arlola

publizitatea@ttakun.com

administrazioa@ttakun.com

### Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,

Ane Labak, Iñaki Arri, Asier

Ondizola, Jose M. Hernandez,

Jesús Artoza, Pako Azpiarte, Edu

Caldero

Informalioak:

Xabier Amador

HIRI-PLANGINTZA

# Lasarte-Oria biziberritzen

## Udalak proiektu bat jarri du abian 3. sektorea indartzeko

Herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorea indartzeko egitasmo bat jarri du martxan Udalak: 'Lasarte-Oria Biziberritzen'. Horma desixuratueta esku hartuz eta krisiaren eraginez hutsik dauden lokalak betez, besteak beste, herriko hirugarren sektorea indartu nahi du Udalak. Hori lantzeko, best hilabeterako hiru lanpostu eskainiko ditu.



Krisiaren eraginez hutsik dauden lokalak betetzeko apustua egingo du Udalak.

TXINTXARRI

**A**skotan esan dugun moduan, Lasarte-Oria zerbitzuen herri bat da. Horregatik, gure ekonomian zati handi bat hirugarren sektorean sostengatzen da". Diagnostiko hori egiten du Udalak herriko ekonomiar buruz. Uste du "garantziatsua" dela sektorea indartzea eta, horregatik, "Lasarte-Oria Biziberritzen" izeneko egitasmoa jarri du martxan.

Proiektuaren xedea honakoa da: Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorea indartzea, etorkizuneko udalari biziago baten osaketan oinarrituta.

Herriko ekonomia suspertzearen lana ez da soilik saltzaile edo ekiztellen lana, Udalaren itziz. "Estrategia orokorrako baten moduan ulertu behar dugu; horregatik,

proiektu herritar bat bultzatzea da helburua, non guztien parte-hartzea ezinbestekoa izango den".

**Hiru adar**

Udalak abian jarri duen proiektuak hiru adar nagusi izango ditu. Batetik, Lasarte-Oriatik kanpora proiektatzeko irudi "on eta erakargarri" bat landuko du. Horretarako, 'Tratu on bat' marka eta filosofia zabaltzen jarraitzeko asmoa daukate.

Bigarrenik, herriko kaleen egoera hobetuko du Udalak. Bi neurri hartuko ditu horretarako: kaleko horma desixuratueta esku hartuko du, eta krisiaren ondorioz hutsik geratu diren lokalak betetzeko apustua egingo du.

Herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen for-

makuntza izango da hirugarren eta azken adarra. Hori ahalbidetzeko, merkataritza eta garai digitaleko tresna berriak prestatuko dituzte.

**Lanpostuak sortu**

Lehen aipatutako hiru adar horiek lantzeko, lau lanpostu sortuko ditu Udalak arlo sozioekonomikoan, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzen bidez. Lan horien iraupena best hilabeterako izango da.

Lanpostuen perfilak honakoak dira: Zuzenbidean lizentziatua, Arte Ederretan edo Arkitekturean lizentziatua eta enpresa nahiz komertzio eremuekin elkarlanean dauden ikasketak edukitzea (bi lanpostu azken honetan). Lan artistikoa, merkatari lana eta lokal hutsak betetzea izango dira egin beharreko zereginak.

KULTURA

## Ikastaro eskaintza zabaldu Manuel Lekuona kultur etxean

Ikastaro-sorta zabaldu egingo da Manuel Lekuona kultur etxean, aurtengo ikasturtean. Batetik, dantza ikastaroak egingo dira. Irekita dago izen-emate epea: irailaren 30a izango da matrikulatzeko azken eguna. Prezioak honakoak dira: Lasarte-Oriar erolotuek 31,30 euro ordaindu beharko dituzte hilero, eta erolotatu gabek, 53,80 euro.

Dantzaokoz gain, beste hainbat ikastaro ere egin ahaliko dira: 'Coaching', Jarrean heziketa, Oiroimen tailerra, Sabel dantza, Zeinu hizkuntza, Jostuntza eta konponketak, Bixigintza eta mantarra eta Literatura tailerrak (euskaraz zein gaztelaniaz). Izan-emate epea berbera da; azken eguna, irailaren 30a da. Prezioak, ordea, desberdinak dira: herriar erolotuek 27,70 ordaindu beharko dituzte, eta 48,70 euro erolotatu gabek. Urriaren 13 eta 17 bitartean hasiko dira horiek denak.

HITZALDIA

## Sei lanpostu eskainiko ditu Udalak

'Lasarte-Oria Biziberritzen' proiektuan lan egiteko sortuko dituen lau lanpostuez gain, beste bi lanpostu gehiago ere eskainiko ditu Udalak, perfil desberdinetakoak. Soziologian lizentziatua izan beharko du batek, Gaztelekuan gasteria teknika iraila egin eta gazteen arteko parte-hartze egitasmoak abiatzea helburu izanik. Beste lanpostuaren profila delineatzaile izatearena da. Zabalatzeko auzoko igogearren eta Kale Nagusia 51-53 eta Goikale 20-21 inguruaren hobekuntza proiektuak garatzea izango ditu helburu.

Beraz, Udalak gutzira 5 hilabeterako iraupena duten 6 lanpostu berri sortuko ditu, Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzen bitartez gauzatuak dituenak. Herriko hirugarren sektorea indartzeko 'Lasarte-Oria Biziberritzen' proiektuan lan egiteko kontratatuko dituzte lau pertsonak, hainbat alortetan lan egiteko: artistikoa, merkatinean eta lokal hutsak betetzen.

IKASTAROA

## Janari manipulatzaile ikastaro berria

Elkolabek Udalarekin elkarlanean, janari-manipulatzaile ikastaro antolatuko du, ostalaritzako sektoreari zuzendua Osasun Sailak eskatzen duen autokontrolaren inguruko edukiekin. Ikastaroa irailaren 24ean, izango da Osasun Zentroko bigarren solairuan daogen erabilera anitzeko gelan. 09:30etik 13:30ra izango da saioa eta prezioa 45 euro. Prezio berezila izango duen lagabetuek, 35 euro. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko deitu OMIC 943 361 605 edo Elkolab 943 533 303.

## Antxota artista-elkarteen aurkezpena

**A**ntxota Lasarte-Oriako artista-elkarte sortu berriaren asmoa honako da, "herriko artista guztien bilgune" izatea. Horretarako, topaleku moduko bat sortu asmoa, "Emozioak" izeneko proiektu berria aurkeztu zuten larunbatean Villa Mirentxun.

Inaugurazio ekitaldia festa antzeko bat izan zen eta herriko artisten lanak ikusgai izan ziren: Jose Luis Mayo eta Edel Pozoren eskulturak, Nicu Barb eta Manuel Mongeren pinturak eta Oscar Barreraren argazkiak ikusketako aukera izan zuten Villa Mirentxuko jaialdira hurbildutako dozenaka lagunek.

Photocall-a eta estilismo desfile bat ere egin zuten orrazkera bitxiekin. Idatzien erakusketara ere prestatu zuten Aitor Avilak eta Vanesa Sanzek eta ikus-entzunezko lanek



Antxota elkarteak gonbidapena luzatu die herriko artistei eurekin batzeko.

dagokienez, "Emozioak" izeneko zazpi minutuko bideo bat ere proiektatu zuten.

Aurkezpenen musika falariak ez zen izan. Maria Callejas arpa-jotzaileak doinu lasalak ateratu zizkien arpa kargariaren sokei eta kontzertu lasaia eskaini zuen. Denek

batera, artista zein herritarrek, afari-merienda egin zuten ekitaldia amaitzeko.

Larunbatekoa estraingaldia izan zen, baina irailaren 26, 27 eta 28an ere erakusketak irekita egingo da Villa Mirentxun, arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara arte.

## San Pedro elizari diru-laguntza emateko eskaera

**P**SE-EEK udal gobernari eskatu dio, ohar bidez jakitera eman duenez, 30.000 euroko diru-laguntza dagoeneko gauzatea, San Pedro elizako teiatuaren berritze lan ordaindu ahal izateko.

PSE-EEK onartu egin zuten udalbatzarrean diru kopuru hori bideratzea San Pedro elizara eta honetan EAJren aldeko bozkek izan zituzten.

"Lasarte-Oriaren ondare historikoaren parte da San Pedro eliza. Horregatik, herritar guztion ardura bada erakin hau zaizkio eta ongi konserbatzea", azpimarratu du PSE-EEren bozeramaile Jesus Zaballosek.

PSE-EEren abuzur, Bilduren gobernauk ez du bideratu 30.000 euroko diru-laguntza

San Pedro eliza berritzeko eta eskatu dute urtea amaitu baino lehenago bideratzea laguntza hori.

"Ez dugu ulertzen nola Gipuzkoako Foru Aldundiak eta beste erakunde batzuek euren ekarpena egin duten bitartean, gure herriko udalteez ez duen diru-laguntza hori eman oraindik", aipatu du Zaballosek.

**Oriako kaparearen egoera**

Gainera, ohar berean, PSE-EEK salatu nahi izan du Oriako auzoko Kamengo Kaparearen egoera "txarra" dela.

"Udalteez ez badu berehala esku hartzen, kaparearen aurrealdeko eta barruko kalteak ere handiagoak izango dira denborarekin", gehitu du Zaballosek.



# Dantzak hartuko du plaza

## Hilabeteko azken igandetan dantza egiteko aukera izango da Okendon

**Kukuka, Erketz eta Itakunen elkarlanari esker, dantzarako aukera izango da Okendo plaza hilabeteko azken igandetan. Lehenengo saioa irailaren 28an izango da eta bertan, beste herri batzuetan egiten den bezala, herritarrek aukera izango dute muxikoak eta plaza dantzan aritzeko. Lehenengo hitzordua irailaren 28an izango da 12:00etan eta sustatzaileek herritarrek animatzen dituzte bertara gerturatzeke. Izan ere, hauen esanetan, zaletasuna piztu eta dantzan ondo pasatzea dira ekimenaren helburu nagusienak.**

TXINTXARRI

**G**arai batean bezala euskal dantzak plazara ekarri nahi dituzte herriko Erketzek, Kukukak eta Itakunek.

Modu "profesionalagoan" lantzen ditu aspaldi Erketz dantza taldeak euskal dantzak. Emanaldi ugari eskaintzen ditu eta uda garaian, hamaika bidai egingoak da folklore jaialdi ezberdinak. Kukukak ere "beste filosofia batekin bada ere", euskal dantzetan trebatzeko aukera eskaintzen die haur zein helduei ikasurtean zehar. Bi taldeek "gehiago edo gutxiago" muxikoak landu eta erakutsi dituzte urteetan.

Itakunek bere aldetik, talde iraunkorra sortu zuen duela urte batzuk plaza dantzen inguruan.

Dabid Egizabalek esan bezala, "Solaskide egitasmoik beharra sortu zen euskaldun berriei euskaraz egiteko beste gune bat eskaintzeko eta bururatu zitzaigun dantza izan zitzekeela aukera ona".

Horrela, Muxikoak lantzen



Sustatzaile taldeak ekimenak herritarren aldetik erantzun ona izatea espero du.

hasi ziren izan ere, dantzek ez dute zailtasun "handirik", "eskuragarriena zela iruditzen zitzaigun. Euskal Herri mailan konturatu ginen herri plaza dantza mugimendua sortzen ari zela gainera eta herri askotan antolatzen zela muxikoak dantzaletzeko hitzordua. Hala ere, talde honetan ezaugarri nagusia da euskara bera badela helburua".

Talde honetan bilatzen dena euskaraz, dantzan gozatzea eta ondo pasatzea da, alegia, ez da bilatzen euskal dantzetan trebatzea. "Lan hori oso ondo Erketzek eta Kukukak egiten dutelako".

### Talde berria

Hala ere, aipatu nahi izan dute talde honetan ere ikasurte berrian izango direla berrikuntzak.

Junkal Perez eta Dabid Egizabalek azaldu duan, Itakunek aurten plaza dan-

tzako bi talde eratuiko ditu, "muxikoak ikasteko taldea irekia izan da beti eta ikasurteak itasurtera jende berria gehitzen joan zaigu, hori pozgarria da oso baina beterronenek beharra sentitu dute beste dantza batzuk ikasteko eta hauei eskaintza berria egin behar zitzaela iruditu zitzaigun".

Horregatik, aurten bi talde izango dira aukeran. Dabid Egizabalek gidatuko du bat, asteartean, "muxikoak utzi gabe, batez ere plaza dantza landuko dituen". Asteazkenetan beriz, Javi Fernandez de Lezeak hartuko du lekukoa, "dantza lehenengo aldiz egitera animatzen diren nentzat edota muxikoekin jarraitu nahi dutenentzat" azpimarratu du Fernandez de Lezak.

Bi egunetan saioak 20:00etatik 21:30era egingo dira.

### Azken igandetan plaza bete

Aurrerentzean hilabeteko azken igandetan Okendon aukera izango da dantzarako. Dantzaletzeko zaletasuna sustatzeko planteamendua irekia da proposatzen dituen hiru taldeek elkarlanean. "Hilabeteko azken igandetan plaza dantza hartuko dute Okendo plaza. Nahiz duen guztia erantzutako gogoia besterik ez da beharko. Ekimen honek, balio badu ondoren, jendea talde ezberdinetan parte hartzea animatzeko primerako izango da baina hasiera batean, zaletasuna piztu nahi dugu".

Sustatzaileek argi dute euskal dantza ikasteko talde ezberdinek egiten duten lana dagoela eta orain proposatzen dena beste helburu batzuk dituela. Erketzeko Ruben Arranzan esanetan, "plaza hartzeak esan nahi du Erketz eta Kukukako ikasleek ere leku bat izango dutela, gainontzeko herritarrek bezala, dantzaletzeko gure emanaldietatik haratago, lagun artean, familian, festa giroan...".

Egizabalentzat funtsezkoa da "umeek helduak dantzetan ikusi behar dituzte gauza arraro bezala bizi ez dezaten dantza". Maider Oiarzabalentzat "ekimena bera aukera bat da herriartean eta herriartentzat. proiektu bateratu bat da dantzarako eta euskal kultura dantzeren bitartez bizi. Apustu paregabea da".

Egizabalentzat funtsezkoa da "umeek helduak dantzetan ikusi behar dituzte gauza arraro bezala bizi ez dezaten dantza". Maider Oiarzabalentzat "ekimena bera aukera bat da herriartean eta herriartentzat. proiektu bateratu bat da dantzarako eta euskal kultura dantzeren bitartez bizi. Apustu paregabea da".

Ekimenak garai batean dantzan aritutako herritarrek hurbiltzea ekarriko duela uste dute. "Azkenean, jendea

dantzan ondo pasatzen ikusteak enbidia pixkat ematen du. Muxikoetan ikusi dugu dantzari ohi asko gerturatu zaigula gogotsu".

### Dantzaletzarako garai berria

Euskal Herrian dantza gertatzen ari den bilakaera da plazara buelta Egizabalen hitzetan. Garai batean dantza taldeak sortu ziren tradizioa babesteko eta pixkanaka plaza hustu egin zen, "jendeak ondo dantzetan ez zekien, ez zen ateratzen fandangoa bat dantzatzera".

Alde handia zegoen dantza taldeetako kide eta dantzan aritzen ez ziren herritarren artean. "Noski dantza taldeak egon behar dira baina plazara atera behar dugu beriz dantza, taldeek teknika eta maila zaintzen dute baina denek, gure plazan dantzaletzeko oihutara berreskuratu dugu".

Igandetan kalean dantza ikusi eta gehiago sakondu nahi bada, Lasarte-Orian badira aukera ezberdinak. Kukuka, Erketz edo Itakunen muxikoetan taldeak.

Erketzen lagunak esaterako, dantza gustuko duen herritar taldea da eta elkaru egiten dira dantza egiten gozatzeke helburu bakarrekin.

Igande hauetako hitzordura gerturatuko den herritar kopuruari dagokionez, "jende kopuruan gora behar egingo dira baina guretzat kontua ez da beti jende asko etortzea, dantza gertatzea da benetan nahi duguna. Esan behar da, zirkuitu bat sortzen ari dela plaza dantzeren inguruan eta dantza egin nahi dutenak mugitu egiten direla herri baitetik bestera, beraz kanpoko jendea ere etorriko dela uste dugu".

"Ekimen honen bilakaera zein den ikusi beharko dugu pixkanaka" aipatu du Junkal Perezek. Argitu behar da "igandetan ez da inor dantza gidatzen ariko, ezer ez dakienaren kasuan, aurrekoari kopiatu beharko dizkio pautsuak...".

### Irailak 28

Lehenengo hitzordua, irailaren 28an 12:00etik 14:00ra. Egun horretarako muxikoetan ibilitako jendearekin entsuega egingo da irailaren 23an 20:00etan Sasoteko eskolan. Hilabeteko azken igandetan plazara gerturatzeke deia egiten dute sustatzaileek eta konplexu eta lotaski etxean utzita, parte hartzea gonbidatzen dituzte herritarrek.



San Pedro jailetan asko izan ziren dantzaletzera animatu ziren herritarrek, horrela ikusi nahi dute hilabeteko azken igandetan Okendon.

Estixu Eizagirre ARGIA aldizkariko zuzendaria

# “Herriarekin harremana abiatzeko modu polita da kantaldia”

ARGIA eguna plaza polita izango da Estixu Eizagirre, aldizkariaren zuzendariaren ustetan, euskaldunek proiektu komunikatiboa bertutik ezagutu dezaten. Jaiak Usurbilen egiten arren, egoitza nagusia Lasarte-Orian du ARGIAk. Horregatik ostiralean kantaldia antolatu dute Manuel Lekuona, Mikel Urdangarin, Anari, Pier Paul Berzaitz, Petti, Estixu Pinatxo, Alboka Abesbatza, Bide Ertzean eta Jon Basagurenen arituko dira 22:00etatik aurrera. Sarrerak dagoeneko salgai daude Jaiak, Manuel Lekuona eta ARGIA bertan 15eurotan. ARGIAtik euskaltzaleak animatzen dituzte kantaldian zein Usurbilen larunbatean egun osoan izango den jai egun honetan parte hartzera.

Maidar AZURMENDI

Ostiralean, ARGIA egunaren bezperan, herriko Manuel Lekuona kontzertu handia egingo da komunikazio proiektuaren alde. Honen inguruan eta ARGIA egunaz mintzatu gara Estixu Eizagirre aldizkariko zuzendariarekin.

Euskal Herri mailako hedabideak herrian du egoitza nagusia eta Lasarte-Orian gehiago erotu nahi du. Helburu hori lortzeko bat egin du udalak herriko merkatari-tza bultzatzeko duen “Tratu On Bat” markarekin”.

**Zergatik berreskuratu duzue ARGIA eguna?**  
ARGIAren inguruko jendea aurrez aurre ezagutzeko, harremanak estuzeko batetik, eta euskaldun gehiagori ARGIA ezagutarazteko, bestetik.

ARGIA oso jende ezberdinek elikatzen dute: harpidedunek, irakurleek, langileek, kolaboratzaileek, publizitatea jartzen duten enpresek, sare sozialetako jarraitzaileek, gizarite mugimenduek, erakundeek... horiekin biltzea funtzioa da, komunikazio proiektu baten oinarria juxtu bere inguruko komunitate hori baita.

Bestetik, Euskal Herri osoan euskaldun asko dago ARGIA ezagutzen ez duena: astekaria aspaldi luzean eskuan izan ez duena, webgunean sartu ez dena, lan egiteko moduz edo bultzatzen dituen balioez informazioirik jaso ez duena, euskarazko hedabideen historiari egin dituen ekarpenak ezagutzen ez dituenena... ARGIA Eguna plaza polita izango da euskaldunek proiektua ezagutu dezaten.

**Zein da ARGIAren egoera? Euskarazko hedabideen etorkizuna nola ikusten duzu?**

Hainbeste urteko ibilian eta euskararen bilakaerari esker, gero eta kazetari espezializatu gehiago dago gero eta gai eremu zabalagoetan, eta hori nabaritu egiten da artikulu kopuruan eta kalitatean. Langile taldea, berriz, egonkortua dugu eta hamaika proiektu, amets, ilusio ditugu. Esan liteke momentu honetan horiek denak egiteko denbora dela gure gabetia nagusia (edo denbora hori erosteko sosen eskasia, baina tira, hori ez da atzo goizekoa...).

Euskarazko hedabideen etorkizuna ikusiko dugula, hori da balio duena. Eta nolazko bada, gu guztion

ekintzen araberakoa izango da: euskaldunek zer irakurri eta zer babesten duten, kazetariak zer egitera iristen diren, erakundeek zeren aldeko apustua egiten duten... horren araberakoa izango da.

**Iragarri duzue, aldateak izango ditu aldizkariak.**  
Astekarian aldateak lantzen ari gara, edukizkoak, bi norabidetan: batetik, papelean argitaratzen duguna eta interneten egiten dugun lana elkarren osagarri izateko. Bi medioen artean dagoen bereizketa eta aldi berean dagoen lotura hori komunikabide guztiontzat da esperimintazio leku, eta horretan ari gara. Horrela azaldu daitke astelehen lortu nahiko genukeen: “Astekaria izan dadila ARGIAk aste horretan duen eduki onenaren bilduma”. Hori nola egiten den? Lantzen ari gara.

Bestetik, kazetariok nor bere gaietan espezializatu eta buru-belarri horietan aritzea dugu bigarren helburua. Kazetariak gai horiek eguneroko landu ditzala webgunean, mailu astekarian, tarteka larun hilabetekarian... gizaritatearentzat garrantzitsuak diren gaiak lortzatzeko ahalik gertuen jarraitzea dugu helburu.

**Irakurleekin harreman zuzena bilatzen duzue jaiarekin, zein uste duzue izango dela erantzuna?**

20 urteren osteko lehen ARGIA Eguna izango denez, erabateko sorpresa da guretzat elkar-tutea daitkeen jende kopurua. Zerbaiten lehiri (eta bertigoie) ihes egiteko, emaitza kualitatiboan jarri dugu begia: 100 izan edo 1.000 izan, izugarri gozatu dugu,

ilusioa eta harremanak elikatuko ditue, eta beraz, mereziko du. Ziur.

**Zer esango zenie euskaltzaleei prestatutako ekintzetan parte hartzeko?**

Euskaltzaleei hauxe esango nieke, gonbidapena luzatzeaz eta euskarazko hedabide honentzat herriar bakoitzaren parte hartzea altxo handia dela nabarmen-tzeaz batera: ziur gaudela egun horrek arrastoren bat utziko duela beregan. Agian zatehasun berak dituen Euskal Herriko edozein txokotako pertsonak ezagutuko dituela, agian gaurkotazuneko gairen bati buruzko ideia edo pentsamendutokoren bat ekarriko duela, agian bertsotaren bat patrikan, agian festak egiteko moduari buruzko adibideren bat, agian mokadu goxoren bat hasobainan, agian euskarazko produktu bereziren bat beseapan, agian halako kazetari edo aditurrekin izandako elkarrizketaxoa, agian norberaren iritzia eman izanaren asebetetzea, agian... eta umore ederra, seguru.

Gogoan geratuko zaiton eguna izango da. Eta zer arraio, euskaltzaleok horrelako festa egunak merezi ditugul!

**ARGIAren egoitza nagusia Lasarte-**

**Orian dago. Zein da herriarekin harremana?**

Lasarte-Oriako udalarekin “Tratu on bat” hitzarmena sinatu berri dugu, eta gure egoitza nagusia bertan dagoenez, herriari gehiago errotu nahi dugu. Lasarte-Oriarekin sentitu dezatela herriari bertako hedabide bat izateaz batera, Euskal Herri osora zabaltzen den beste bat ere badutela. Eta alderantziz, Euskal Herriar Lasarte-Oria herria euskarazko kazetaritza-ekin lotu dadila.

Lasarte-Oria-ARGIA harremana abiatzeko modu polita iruditu zaigu ARGIA Egunaren bezperan kantaldia herriari antolatzea.

Euskal kazetariaren zaleentzat gogamena izango dela desio dugu. Kartelaren aniztasunak, aberastasunak deitzen du arreta lehen kolpetik: musika estilo oso bariatuko artistak dira, Euskal Herriko bost lurraldetakoak, elkarrizketak, adin tarte zabalak dutenak... ea bertan elkar ikusten dugun!



DANI BLANCO

## kontzertua

### Argiaren alde

Irailak 26

Lasarte-Oria  
Manuel Lekuona Kultur Etxea  
22:00

**MIKEL URDANGARIN  
ANARI  
PIER PAUL BERZAITZ  
PETTI  
ESTIXU PINATXO  
ALBOKA TALDEA  
BIDE ERTZEAN  
JON BASAGUREN**

Sarrerak: 15 €

Lasarte-Orian: Argian, Jainketa Kultur Etxean.  
Hernani: Oinndi eta Txili tabernetan.  
Usurbilen: Bordatxo tabernan.  
Kutxabank Sarrerak

## PADELA

## Lasarte-Oriako I. Padel Txapelketa aurkeztu dute

Gutzira 20 bikotek eman dute izena gaur hasiko den lehiaketan parte-hartzeko

Padel txapelketa aurten lehenengoz egingo da herrian. Gaur hasiko da lehiaketa eta finalak beriz, abenduaren 27an jokatuko dira. Agerraldia egin zuten asteazkenean padel pistan Txus Alonso eta Ruben Amenabar antolatzaileek, txapelketaren nondik-norakoak azaltzeko.

INIGO GONZALEZ

Gutzira 20 bikotek eman dute izena lehiaketan aritzeko. Irailaren 8an itxi zen epea eta Alonsok nabarmendu zuen "espero baino bikote gehiagok" eman dutela izena: "Guk 16 bat aurreikusten genuen". Amenabarrek erantsi zuen jokalarri batzuk "epeaz kanpo" jarri direla harremanetan antolatzaileekin, eta txapelketatik al geratu direla.

Izen-ematearen prezioa 50 eurokoa izan da. Trukean, jokalarri gutxiak kamiseta bat eta pilota pote bat jaso dute. Baldintzak honakoak ziren: jokalarrietako bat Lasarte-Orian errolatuta egotea eta biak udal kiroldegiko bazkide izatea.

Gizonetako eta emakumezko kategoriak ateratzeko asmoa zeukaten antolatzaileek, baina azkenean gizonetakoena bakarrik atera da aurrera, emakumezkoetan ez

zegoelako nahikoa jokalarri.

## Txapelketaren egitura

Gutzira 20 bikotek eman dutenez izena, lauko bost multzo sortu dira. Multzo bakoitzeko lehenengo bi bikoteak azken fasera pasako dira, eta beste biek kontsolazio fasearekin konformatu beharko dute.

Partidak astelehena, ostiralean, larunbatetan eta igandetan jokatuko dira. Astelehentakoak eta ostiralekoak 19:00etatik 22:00etara izango dira (ordu eta erdiko bi partida). Larunbatetakoak beriz, 9:30etatik 17:00etara jokatuko dira; ordu eta erdikoak izango da bakoitza. Azkenik, 11etatik 12:30etara izango dira igandetakoak. Amenabarrek adierazi zuen "malgutasuna" emango zaiela jokalariei ordutegiak aldatzeko.

## Etelena atera pistari

"Luxu bat da gure herriko bezalako padel pista bat edu-



Ruben Amenabar eta Txus Alonso antolatzaileak I. Padel Txapelketaren kartela eskutan dutela.

kitzea", esan zuen Txus Alonsok. Gaineratu zuen "ahalik eta etekin gehiena" atera behar zaiola, eta txapelketarekin hori lortuko dutela. "Bost urte daramatzagu txapelketa antolatzeko itxaroten, eta azkenean padel jokalaririk aurre hartu eta guk geuk antolatu dugu", aipatu zuen Alonsok. Dena den, eskerrak eman dizkiete antolatzaileek Lasarte-Oriako Udalari eta kiroldegiri, eman dute laguntzagatik.

Teknologia berriak erabili dituzte padel jokalariek euren sarea handitzeko, Alonsok nabarmendu duenez: "Orain

dela gutxi arte jokalarri berberak biltzen ginen aldiro-aldiro, baina 'Whatsapp' talde bat sortu genuenetik askoz ere jokalarri gehiago gara orain". Gaur hasiko dira lehiatan 20 bikoteak, onenak izateko asmoz.

Sariak egongo direla ere aurreratu dute antolatzaileek, baina oraindik erabari itxi gabe dituztela ohartarazi dute.

## Lehenengo partidak

Txapelketa estreinatuko duen partida gaur arratsaldeko 17:30etan hasiko da. Iker Kañedo eta Oswal Cañedo

Pedro Unanue eta Karmelo Zarzuoloren aurka neurtuko dituzte indarrak.

Bigarren partidatan, arratsaldeko 19:00ean jokatuko den partidatan, Jose Mari Aristi eta Sergio Rodriguez bikoteak Jose Joaquin Peña eta Fernando Almeran aurka arituko da.

Ostegunean aldez, partida bakarra jokatuko da, Jon Esnalek eta Eli Iradik, Javi Cabo eta Jon Izetaren aurka neurtuko dituzte indarrak.

Txapelketaren lehenengo jardunaldiko azken neurtutako ostirala, larunbata eta igandea bitartean jokatuko dira kiroldegiko padel pistan.

## FUTBOLA

## Ostadarreko jubenilen berdinketa

Ostadar SKT-ko jubenilen lehen mailako taldeak asteburuan hasi du Liga Michelinen, Urnieta KEren emakumeen, baina defentsako huts bat tarteke penaltia egin zuten etxekoek. Hala ere, Julen Ormazabal Ostadarreko atezainak penaltia gelditzea lortu zuen eta hauspoa eman zion horek taldeari.

## Puntu bat Liga hasteko

Ilusio handiz zelairatu ziren urdin-beltzak Michelingo berdegunera, baina defentsako huts bat tarteke penaltia egin zuten etxekoek. Hala ere, Julen Ormazabal Ostadarreko atezainak penaltia gelditzea lortu zuen eta hauspoa eman zion horek taldeari.

Atsedenaldira 1-1eko emaitza iritsi ziren, Jokin Insausti Ostadarreko aurrelari lehen zatian sartutako golari esker.



Jokin Insausti bi gol egin zituen etxekoentzat, eta Beni Benitezek bestea.

Bigarren zatia tentsio handikoa izan zela adierazi zuen Ibai Etxaide entrenatzaileak: "Beraiek bi aldez jarri zaizkigu aurretik, 1-2 eta 2-3koarekin, baina gaurkoan jokoak baino gehiago garrak eman digu puntua. Markagailuan 2-3 atzetik ginelu hiruak lerroa jarri dugu atzetan, bi lateralek gora igotzeko aukera izan dute eta bi

aurrelari jarrita sakontasuna bilatu dugu area inguruan".

Javi Solchagak eta Ibai Etxaidek zuzentzen duten taldearen helburua argia da: "Lehiatu egin nahi dugu, lehenengo ligaxka honetan lehen bietan sailkatzea eta igoera fasean konpetitzea izango da asmoa laz bezala, talde ona dugu, posible da".

## LABURRAK

## Raul Gomez Margallo garaile Usturbilgo Baxurde Krosean



laz bezala, Raul Gomez lasarteoriatarak irabazi du Usturbilgo VII. Baxurde Krose 36 minutu eta 20 segunduko denborarekin. Atzetik, Asier Martinez urrietarra eta Ander Lazkano andoaindarra sailkatu ziren. Denera 21 herritarrek osatu zuten 10,75 kilometroko ibilbidetako lasterketa, tartean emakumezko herritar bakarrak, Kristina Bernalek. Korrikalari guztiek bero handia izan zuten ibilbide osoan zehar.

## Maialen Chourraut Munduko Txapelketako finaletik kanpo geratu da

Ostiraleko sailkapenean denbora onena lortuta, finalera sartzeko arazorik izango ez zuela zirudien, baina piraguismoak halakoak izaten ditu eta atzoko finalurrekoan ezin izan zuen hamar oneren artean sailkatu. Ondorioz, 9. eginda, K1 mailako finaletik al geratu zen Chourraut herriko palista eta zapore gazi-gozaoarekin itzuliko da AEBtako Deep Creek kanal zaitetik. Ama izan ostean elitera itzuli da Londen hondoen bontzezko domina eskuratu zuen lasarteoriatarra, eta aurten Seuko Munduko Kopan garaipena lortu bazuen ere, esku-hutsik itzuli da etxera. Orain atzetan hartu eta 2016ko Rioiko Joko Olinpikoetarako sailkapen txartela lortzen saiatuko da Maialen Chourraut.

## Agenda

Ostirala 26, 20:00, Okendo plaza



### Gelajauziak, Kukai-ren azken lana plazan

Kukai Dantza taldeak bere azken "Gelajauziak" lana aurkeztuko du Okendo plazan. Euskal dantza eta dantza garaikidea uztartuz, emaldiaren protagonista dantza eta kalea dira beste behin ere Jon Maya dantziari zuzentzen duen taldearen azken lanean. Lasarte-Oria dantzan ekimenaren baitako saioa da hau eta Eusko Jaurlaritzak dantza bultzazko sustatutakoa. Saio hau uztailaren zegoen programatuta eta dantziari hau aurkezteko ere hasi ziren herritar askok gogoratuko duten modura. Euriagatik ikuskizuna hasi eta hamar minutura bertan behera utzi behar izan zuten.

## Lasarte-Oria

### Musika

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 26, 22:00ean

Irailaren 26an, ostiralean kontzertua izango da Argiaren alde. Mikel Urdangarin, Anari, Pier Paul Berzaitz, Petti, Estixu Pinatxo, Alboka Taldea, Bide Ertrazan eta Jon Basagurenen kontzertua. Sarrera 15 euro izango dira. Sarre-rak eskuratu daitezke aurrez Argiaren egoitzan, Jalgin edo Manuel Lekuonan bertan.

BASAUNDI PLAZA

Larunbata 27, 19:30ean

Adunia taldearen kontzertuak aurtengo Kultur Kale zikloari amaiera emango dio emanaldi honekin. Doinu zeltiar eta rock-a nahasten dituen abestiak eskainiko ditu. Abuztuan bertan behera utzi behar izan zuten kontzertua eguraldi txarra iragarria zegoela eta.

### Dantza

OKENDO PLAZA

Igandea 28, 12:00etan

Plaza dantza saio irekia. Hilabeteko azken igandetan egingo da aurrerantzean.

## Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Osteguna 25, 18:30ean

Atondu Hitzaldi-talerra Ane Albisu Iriarte izango da hizlaria eta "festarako jantziak azken 100 urteotan, jantzeko moduaren garrantzia" izango da hitzaldiaren gaia. Talerraren berriz, Hitzalari erakutsiko du nola jantzi euskal jantzi tradizionalak.

## Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 3, 19:00etan

"Cotillas" antzezilana ikusteko aukera

izango da Nagusien Omenaldiaren egitarauaren baitan.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 4, 18:00etan

"Kapsulak" Markelirne taldearen haur antzerkia ikusteko aukera izango da.

## Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astelehena 6, 18:00etan

Pello Añorgarekin ekingo zaio ikasturteko ipuin-kontalariari haur liburuetan. Lehenengo saioa 4-5 urteko umei zuzenduta.

## Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Irailaren zehar

Mundu Bat GKEK antolatuta Carmen Caballero argazkilariairen Kolonbiako egoerari buruzko argazki erakusketa ikusgai.

VILLA MIRENTXUN

Irailak 26, 27 eta 28

Antxota, Lasarte-Oriako Artisten elkarteak antolatuta da erakusketa. 18:00tik 21:00ra izango da zabalik.

## Usubil

### Argia Eguna

ERDINGUNEAN

Larunbata 26, 9:30etik

"Nendo Dang'o" taler ekologista, kontzertuko Behi Bi Blues, Eñaut Elorrieta, Perlak eta Esther Sound Sister, bertso saioa Amets Zuzaloren, Miren Amuriza, Julio Soto, Uxue Albreki, Sustrai Colina eta Rosi Lazkanoren, bazkari herrikoia, omenaldia, argiazaleen topaketa, jolasen txokoa...

## Herritarren txokoa

### Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, hiru txirrida, bi mugikor, bi pultsera bata urrezkoa, eraztun bat, bi erloju eta belarritakoak. Gauza hauen jabeak direla egiaztatu zuten herritarrek, hilabeteko epea dute Udaltzainen Bulegora hurbildu eta jasotzeko, goizez 09:00etatik 13:00etara.

### Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza izango da Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan hilabeteko bezala. Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da irailaren 24ean, asteazkena, arratsaldeko 17:00etan.

### Xumela entsugueak

Xumela korauk entsugueak irailaren 15ean hasi zuten Landaberri BHI erakinean. Entsuqueak 19:30etik 20:30era egingen dituzte eta honetan parte hartzea irakia dela gogoratu nahi dute sustatzaileek ikasturte hasiera honetan. Euskarak ikasten ari diren herritarrak

erak bertaratzea animatzen dituzte batez ere kantuan ondo pasa eta euskaraz aritzeko lagun berriak egiteko leku aproposa delako.

### Odol ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan irailaren 29an, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

### Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan da. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteko lokalean banatzen dira barzak eta fruitak, garaian garaikoak eta ekologikoak. Kooperatiba honen proiektua gustuko dutenentzat atek zabalik ditzuzela jakitera eman dute. Informazioa gureguz eskuratzeko URL: [lasarteoria@hotmail.com](mailto:lasarteoria@hotmail.com) helbidetan.

## Eskutitza

### Hauteskunde Sindikalak

Buru belarri gaude hauteskunde sindikalen epealdi trinkoan. Ez dute hauteskunde politikoan oihartzuna izango, baina hauteskunde hauetan gertatzen denari begira izango ditugu bai patronala eta baita gobernuak ere. Gure asmoa, lehenik eta behin, hauteskunde sindikalak Euskal Herriko agenda politikoa eta sozialean kokatzea da. Ez delako berdina herri eta klase bezala aurrez aurre ditugun eronkeri mapa sindikal batekin edo besteekin aurre egitea. Nor indartu behar den guri galdetuz gero, erantzuna baitakoa da: lanean daudenak edo langabetuak, lan produktiboa edo erreproduktiboa, gure ustez LAB indartzea da Euskal Herriaren eta euskal langiliarren hauturik hobena. Zenbat eta ordezkari gehiago lotu orduan eta aukera gehiago langileen eskubideak borrokatuko. Zenbat eta LABeko militante gehiago lan munduan orduan eta aukera gehiago patronalaren gehiegikeriei aurre egiteko eta instituzioak beste politika publiko batzuk egin ditzaten borrokatuko. Zenbat eta LAB gehiago, aldaketa politikoaren aldeko borroka gehiago.

Gure helburua Euskal Herria aldatzea da, langiliarren egoera eraldatzeko borroka egingo dugu, eta baita beste herrietakoena aldatzeko ere. Eta hori lan militantearik eta ekingin sindikalarekin egingo dugu. Ez da kasualitatea lan erreforma oratu zenetik gehien gion den sindikatua LAB izatea. Orain urte bete patronalarekin akordio interprofesio-

nal bat negoziatzen geunden hitzamenak eta gure negoziazio kolektiboko eskubidea babesteko. Erreforma hankak gora jartzen ez zuten akordioa zen, baina bere eraginak mugatu eta alternatiba errealek erakitzen hasteko oinarriak jartzen zituen. Confesbask ezetxokoa esan zuelako ez genuen sinatu akordioa, eta guk argi dugu: patronalaren asmoak mugatu jartzen zizkion akordioak oso gure egon ginen. Patronalaren posizio desgertutua eta negoziazio kolektiboa agenda politikoa eta instituzionalaren erdian jarri genuen. Konfrontazioa instituzioetaraino eramane ginen, posizioak mugitu, presionatu eta negoziazio bat behartu. Hori da LAB, proposamenak egingen dituen sindikatua, hitzamenen defentsan ari den sindikatua. Hauteskundetan gure lerro eta jarrera sindikalak berrestuz aurkezten gara. Hobeetiko konpromisoarekin, gure estrategia sindikalean sakontzeko asmoarekin; baina ikuspegian asmatzen dugula pentsatuz.

Kritikatu, salatu eta alternatiba badagola aldarrikatu behar dugu. Lantokietan eta kanpo. Herian, eragile sozialekin, eta langileengana zuzenean joz. Indarrak bildu behar ditugu gure irakurketaren inguruan eta indar horiek alternatibaren erakuntzara bideratu behar ditugu. Eta alternatiba badago, gure ustez, bat eta bakarra: Auzalari Herria erakitzeko, libre eta demokratikoki, herria osatzen dugun langileen interese gainean. LAB

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi eta eskutitza argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 [txintxarri@txintxarri.info](mailto:txintxarri@txintxarri.info)



# Maskotaren eguna Atsobakarren

Txakurrak protagonista izan badira ere, bestelako animaliak ere agertu dira

**Bigarren urtez jarraian, Atsobakarreko belazeak herritarren maskoten topaleku bilakatu dira. Goizean goizetik hasi eta arratsaldeko 15:00ak arte, egitarau oparoa izan zuten atzo Lasarte-Orian. Gehienbat txakurrak gerturatu zituzten jabeek, baina ikusi zen katu edo untxirik ere Urbarten. Jende asko bildu zen animaliak ikustera eta eguraldi eguzkitsua lagun, goiz-pasa ederra egin zuten herritarrek maskota kuttunaren alboan.**

TXINTXARRI

**G**oizean goiz, Udale-  
txe atarian biltzeko  
hitzordua zeukaten  
jarrita maskoten jabeek eta  
desfile moduko batean Atso-  
bakar auzorainoko bidea  
egin zuten.

Behin parkera iritsita, fes-  
tak jarraitu egin zuten. Haste-  
ko, Mikel Pino txakur  
hezitzailearen Ada txakurrak  
eta Txakurtzen elkarteak ikus-  
kizuna eman zuten bertan  
bildu ziren dozenaka lagunen  
gozamenerako.

#### Lehiaketa nagusia

Erakustaldi horien ostean eto-  
rri zen eguneko momentu  
gorena. Maskoten jabeek ilara

egin zuten euren animalia  
herritarrei erakusteko. Par-  
kean prestatutako belazean  
itzuli moduko bat eman zuten  
txakur ar ederrena, txakur  
eme ederrena, txakur mestizo  
jatorrena eta txakur txikiena  
zein ziren aukeratzeko.

Bestalde, kontzientziazio  
kanpainak ere egin zituzten  
txakur elkarte eta jabeek,  
batez ere abandonatutako  
animalia batzuek duten adop-  
zioaren premia zabalduz.

Auzoko tabernetan gaine-  
ra pintxo-potea egin zen eta  
herritarrek primerako aukera  
izan zuten egiten zuten bero  
handiari tragotxo batekin  
aurre egiteko. Finean, egun  
polita igaro zuten maskoten  
jabeek.



Denetarik irudiak ikusi genituen atzo Atsobakarren. Maskotaren eguneko argazki guztiak txintxarri.info atarian.



**Sebastián Redondo**  
**ITURGINTZA**  
**GASA**  
**KALEFAZIOA**  
**GREMIOEN KOORDINAZIOA**  
**ERABERRITZEAK**



JAIZKIBEL ENPARANTZA 8 BEHEA, SASOETA AUZOA  
20160 LASARTE-ORIA  
TEL.: 943 371845  
652 775373

ESKAINITZA  
JUNKERS CERASTAR BAJO NOX

1.650 €  
(Berritze)



**ETORRI**  
**ETA**  
**APROBETXATU**  
**GURE PREZIOAK**

OSAGARRIAK

- Laguntza teknikoak  
minusbaliatuztat
- Adineko pertsonentzat



24 ordutan, bainuontzia duxagatik aldatzen dugu

